

Espediente moetea: Administrazio kontratazioa

Kontratua: Gazte ekimenak sustatzeko zerbitzua emoteko kontratua, prozedura negoziatua publizidadeagaz

Espediente zenbakia: KU 8-3

GAZTE EKIMENAK SUSTATZEKO ZERBITZUA EMOTEKO KONTRATUAREN ADMINISTRAZINO-BALDINTZA TEKNIKOEN ORRIAK

PROZEDURA NEGOZIATUAREN BIDEZKO ESLEIPENA

1.- KONTRATUAREN HELBURUA

Kontratu honen xedea, Gazte ekimenak sustatzeko zerbitzua emotea da.

2009 urtean Bermeoko II. Gazte Plana martxan jarriko da. Horrek, helburu eta jarduera ezbardinak finkatzen dauz. Gazte Ekimenak Sustatzeko Zerbitzuaren betebeharra, aitatu helburu eta jarduera horreek aurrera ataratea izango da.

Bestalde, orain arte egindako lanari jarraipena emon behar jake, eta azken urteotan sortutako proiektuei, urtero burutzen diranak, jagokon laguntza emon behar jake GEZetik.

2.- ESLEIPENDUNAREN ZEREGINAK

Esleipendunak ondorengo egin beharko dau:

- Gazte ekimenak sustatzeko zerbitzuaren proiektu osoa aurkeztu.
- Proiektuan agertzen diran ekintzak gauzatzeko behar diran pausuak emon.
- Herriko gazte taldeekaz harremonak izan.
- Gazteen ekintzak sustatu, laguntza teknikoa eta ekonomikoa emonez.
- Urtero ebaluaketa txostena aurkeztu.

3. – BERMEOKO UDALAREN ZEREGINAK

Udalari jagoko:

- Baliabide materialak eta ekonomikoa jartzea zerbitzua emoteko.



4. – AURKEZTU BEHARREKO PROIEKTUAREN EZAUGARRIAK

4.1.- XEDEA

Zerbitzu honen xedea Gazte Ekimenak Sustatzeko zerbitzua kudeatzea da.

GEZek, herrian sortzen diran gazte ekimen guztiak laguntza eta babesa emongo deuto. Laguntza hau teknikoa eta ekonomikoa izango da.

Ekimen honegaz ondorengo helburuak lortu gura dira, horreek izango diralarik GEZen funtzinoak, hain zuzen:

- Bermeoko II. Gazte Planak finkatutako helburu eta jarduerak betetu.
- Gazteen parte-hartzea bultzatu eta sustatu.
- Parte-hartzearen sustapena indartu.
- Gazte foroa gizarteratu eta gazteei bertan parte hartzeko aukera emon.
- Aisialdi eta Kultura foroak bizibarritu.
- Herriko gazte-lonjen zenbaketa, lokalizazio eta diagnosi bat egin eta eurekaz informazio, formazio eta koordinazio mekanismoak ezarri.
- Gazte ekimenei jagokan aholkularitza, orientabidea eta laguntza eskaini.
- Gaztelekuko erabiltzaileetara hurreratu.
- Kuadrillategi egitasmoaren jarraipena burutu.
- Zerbitzua ezagutarazoteko ekintzak sustatu.
- Gazte Planeko batzarrak antolatu, dinamizatu eta aktak jaso.

4.2.- HELBURU OROKORRAK

A) Bermeon gazte ekimenak aurrera eramateko beharrezkoak eta baliabideen ebaluaketaren emaitzak erabili (bolondresgo ekimenak, autokudeatutako edozein ekimen...)

B) Bermeoko gazteek euren ekimenak garatzeko zerbitzu bat izatea (bai bolondres eta bai autokudeatutako ekimenak):

- Euren ekimenak garatu ahal izateko erreferentziazko leku eta pertsona bat izatea.
- Gazteek ekimenak garatzeko sentsibilizazioa.
- Ekimenak garatzeko behar daben prestakuntza / formazioa antolatzea.
- Ekimenen aholkularitza (ekimenen diseinuan, finantziabideen bilaketan, e.a.)
- Ekimenen jarripena.



c) Gazteen partaidetza lortu:

- Gazteen alkarteak bultzatu.
- Alkarteetan ez dagozan gazteei borondatezko lanri eta elkartegintzari orientazioa emon.
- Gazte Foro bat sortu.
- Gizartean parte hartzeko ohitura sortu.

4.3.- HARTZAILEAK

14 eta 35 urte bitarteko bermeotarrak.

4.4.- METODOLOGIA

- Zerbitzuaren diseinu, garapen eta ebaluaketan, ezinbestekoa izango da gazteen partaidetza eta euren iritzia jasotzea.

- Era berean, Bermeon gazteekaz lan egiten daberen errekurtsoekaz (udala eta elkarteak) koordinazioa emon beharko da. Alde batetik, Gazte Planeko batzordeko kide guztiekaz eta bestaldetik herriko kultur, kirol eta giza elkarteekaz.

4.5.- GIZA BALIABIDEAK

Plegu honetan agertzen diran preskripzioak eta 2. puntuari islatzen diran zereginak kontutan hartuta, Gazte ekimenak bultzatzeko zerbitzuaren arduraduna, gitxienez, L.H.ko goi mailako zikloko titulua euki beharko dau.

Zerbitzua euskaraz eskeinitako da, beraz, ezinbestekoa izango da euskeraren ezagupena (EGA mailako titulua edo parekoa).

Gazte ekimenen sustatzaile honek Gazte Informatzaileagaz koordinaturik lan egin beharko dau, eta Gazte Planeko Batzordearen menpe. Era berean Gazte Planeko batzarrak antolatu eta dinamizatuko dauz et horreetako aktak jaso.

4.6.- KOKAPENA ETA ORDUTEGIA

Gazte Ekimenak Sustatzeko Zerbitzua Gizarte eta Kultura Etxean kokatuko da, Gazte Informazio Zerbitzuaren bulegoaren ondoan.

Zerbitzua asteko 30 orduetan eskeinitako da.



5. - ESLEIPEN ERIZPIDEAK

- | | |
|--|------|
| - Gazte ekimenak sustatzeko zerbitzuaren proiektua | % 50 |
| - Prezioa | % 30 |
| - Hobekuntzak | % 20 |

6.- ESLEIPENDUNAREN BESTE BETEBEHARRAK

Gazte Planeko batzordeko kideekaz hartu-emonak eta koordinazioa, hain zuzen be, kultura animatzaileagaz eta Gazte Informazio Zerbitzuko arduradunagaz.

Bermeon, 2008ko azaroaren 10ean

